

## **ARTEAREN INGURUAN:**

Berrobiko eskolako irakasleen klaustroak erronka berri bati aurre egin dio. Hemen azalduko da 4., 5. eta 6. mailako ikasleek, tutorearen laguntzaz egin duten lana proiektu zabal honetan. Guztira gelan 10 ikasle izan dira.

Proiektuaren gaia irakasleak aukeratu izan da, berari pertsonalki asko gustatzen zaiolako: **“Oteiza eta XX. mendeko artea ”**.

Lehen pausoa informazioa biltzea izan zen. Lan hau irakasleak hasi zuen eta ikasleei informazioa pasatzen hasi zen. Poliki- poliki ikasleen interesa pizten joan zen, Horretan, Oteizaren museora egindako bisitak lagundu zuen. Han, informazio ugaria jasotzeaz gain, animatzea eta pilak kargatzea lortu bai zuten. Eta horrela, konturatu ere egin gabe lana bideratzen hasi ziren.

Ondoren, plastikako saioretan tailer ezberdinak antolatu ziren: bolan tailerra, Klarionen tailerra, poliespanarekin, kartulinarekin bolumenak, plastilina, kartoiarekin kutzak...

Landu ziren konzeptuak: bolumena, edertasuna, adierazpena,... modu xumean baina asko disfrutatuz.

Horrekin batera, Oteizaren biografia ere landu zen.

Proiektua poliki- poliki eskola osora zabaldu zen (eskola txikietako formazio saioretan artearen inguruan lana egiteko proposamena ere zabaldu bai zen) eta honela eskola guztiaren artean **“ Katalogoa ”** egitea erabaki zen.

Katalogoa nahiko obra irekia denez, bertan azaldu daitezke artisten biografiak, obrei buruzko iritziak eta idazleen histori txikiak ere.

Katalogoaren izenburua aukeratu zen: **Artearen inguruan.**

Internet eta arte liburuen laguntzaz XX. mendeko artista mordo baten biografiak eta obren berri jaso zituzten: Oteiza, Chillida, Ruiz balerdi, Remigio Mendiburu, Nagel,...

I kasleak lana bikoteka egin zuten: testu ezberdinak irakurri eta jaso zuten informazioarekin beraien testuak sortu. I tzulpen lanak ere egin ziren informazio asko gazteleraz jaso bai zen.

Artista batzuekin (edota beraien familiakoekin) harreman zuzenagoak ere izan ziren, galdera batzuk bidali zitzaizkien eta beraiek erantzun egin zituzten: Ameztoy, Arias, Dora Salazar, Jose Ramon Amondarain...

Beste batzuk aldiz, eskolan izan genituen: Manu Muniategiandikoetxea eskolara etorri zen, Koldobika Jauregi eta Goenagaren tailerrak ikusteko aukera izan genuen, Miren Gonzalezek ere bere erakusketa erakutsi zigun... Lan hau guztia egiteko hiru hizkuntza erabili zituzten: euskara, gaztelania eta ingelera.

Lanari bukaera emateko, katalogoa inprimategitik atera aurretik erakusketa antolatu zuten eskolan eta eskolako partaide eta herritar guztientzat izan zuten zabalik, eta jakina, horretarako ordutegi egokiak antolatu zituzten. (informazio gehiago web orrian)